



CAMPOS-EK ETA BERMEOKO UDALAK I. SALOME CAMPOS ZEHARKALDIA AURKEZTU DUTE

Igeriketa-proba, euskal kontserba-fabrikak antolatua, irailaren 7an egingo da herriko portuaren eta Izaro uhartearen artean. Ehun bat kirolari federatuk 5.000 metroko distantzia handia egingo dute igerian. Garaileek, emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan, beren pisua kontserbako Hegaluzetan irabaziko dute.

Bermeon, 2013ko irailaren 3an

Salome Campos zeharkaldiaren lehen edizioa aurkezten du Campos-ek, Bermeoko Udalarekin lankidetzan antolatuta datorren irailaren 7rako. Euskal kontserba-fabrikak antolatutako igeriketa-proba honetan, Bermeoko portutik Izaro uhartera arteko distantzia egingo dute igerian. Ehun bat parte-hartzailek egingo dute joan-etorria, 5.000 metrokoa, Bizkaiko kostako parajerik ezagunenetako batean. Ikusgarria izango da erronka. Izan ere, gaur egun ur irekietan antolatzen diren era honetako lehiaketa arrakastatsuetan normalean egiten den distantzia baino askoz handiagoa izango da zeharkaldi honetakoa.

Duela mende bat enpresaren sortzaileetako batek, Salome Camposek, egindako balentriaren omenaldia egingo da erakustaldian, distantzia hori bera ontzi batean beste hainbat pertsonak lagunduta egiteko apustua irabazi zuelako baita aski ezaguna. Ekintza gogoangarria garai hartan. “Bere izaera autodidakta beti itsasoari begira zegoen familia baten baitan sortu zen. Salome nortasun handiko emakumea izan zen, eta bere gizonarekin eta Julia eta Felicia ahizpekin batera sortu zuen industria tradizionalak, udalerriko emakumeen lan-iturri garrantzitsua izateaz gain, mugak gainditzea ere lortu du, planta berriak irekiz Galizian eta Ekuadorren”, Marketin-zuzendari den Aintzi Laburuk gogorarazi zuenez.

Ekitaldiak sailkapenerako balioko ez badu ere, antolatzaileek beren pisua Campos hegaluzetan emango die ibilbidea egiten duten lehen kirolariei, bai gizonezkoen kategorian eta bai emakumezkoenengan. Gainera, gainerako igerilariek ere oroigarri bat jasoko dute haien parte-hartzeagatik eskerrak emateko.

Ekimenak Udalaren laguntza izango du, teknikarien jakinduria eskainiz, eta instalazioak eta proba behar bezala burutzeko bitartekoen koordinazioa jarriz. “Berri paregabea da Bermeorentzat I.



Salome Campos zeharkaldia egitea”, esan zuen pozarren herriko alkate Idurre Bidegurenek, eta herriko bizilagun bat omenduko zela ere nabarmendu zuen. “Duela ehun urte jada agerian jarri zuen Bermeoko emakumeen izaera Salome Campos-ek: borrokalaria, ekintzailea eta kemen handikoa, edozein egoerari aurre egiteko gai dena”, esan zuen. Lehiakideen jarraipena eta osasun-estaldura Gurutze Gorriak egingo ditu. Ildo horretan bertan, garrantzi handiko lehiaketak antolatzen esperientzia zabala duen Fortuna Kirol Elkartearekin batera antolatu da ekitaldi hau. Besteak beste, Fortuna Kirol Elkarteak Donostiako Pasealeku Berriko zeharkaldia edota Behobia-Donostia lasterketa klasikoa antolatu ohi ditu.

Federatutako igerilari ugarik hartuko dute parte dagoeneko ur irekietako zirkuituen egutegian erreferente bihurtu den Salome Campos I. Zeharkaldian. Hain zuzen ere, “hau bezalako lehiaketak egiteko beharra dago, gero eta jende gehiagok parte hartzen baitu igeriketako herri-lasterketetan, eta horrelako ekitaldietarako prestatzeak ariketa egitera animatzen ditu, eta aktibo jarraitzera. Halaber, lasterketa honetako protagonistaren historiak ere badu bere garrantzia, Bermeoko emakume borrokalari hark lortu zuenak balio dezake-eta guk elkarre gisa sustatu nahi dugun emakumezkoen kirola sustatzeko”, Fortuna Elkarteak Ekitaldien Antolamenduko arduradun den Iñigo Etxeberriak azaldu zuenez.

Emakumezkoen nahiz gizonezkoen kategorietako espezialista onenek hartuko dute parte zeharkaldi honetan. Horien artean, Lara Vicandi adibidez. Vicandik igeri egindako aurreko travesia guztietan eta sailkapen orokorrean bigarren postuan sailkatu da. 2009an. Kontxako Zeharkaldia irabazi egin zuen.

Gizonezko parte-hartzaileen artean, berriz, antolatzaileek ziurtatu dutenez, triatloiaren historian mito bihurtu den *Alfredo Olabegoia* egongo da, eta berak, hain zuzen ere, beteko ditu 25 urte aurten Hawaiiiko Ironmanean lehen aldiz parte hartu zuenetik. Halaber, Bermeon egongo dira Gibraltarreko Itsasarteko zeharkaldian parte hartu duen *Eduardo Ryan* eta Ironmanean ia hogeitaz parte hartu duen Jesus Indakoetxea ere. Denboraldiko klasiko bihurtu den *Damián Ortiz* katalanak eta iraupen lasterketetan ugaritan garaipen ugari lortu dituen *Adnan Mustafic* igerilari getxotarrak ere ez dute huts egingo. Eliteko lehiakide horiek guztiek lehia handiko zeharkaldia izango dela bermatzen dute.



GOZATZEKO EGUNA

Salome Campos I. Zeharkaldia portuko arrapalan hasiko da, izotz-fabrikaren ondoan. 14:00etan ekingo zaio emakumezkoen zeharkaldiari, eta gizonezkoena, berriz, 14:15ean hasiko da. 5.000 metroko zeharkaldiaren lehen erdia, kanpoaldeko kaitik Izaro Uhartetik gertu egongo den buiara arte egingo da. Bertan emango da buelta abiapunturaino. Halere, eguraldia dela-eta lasterketaren ibilbidean aldaketak egon daitezke. Eguerdiko hamabietatik aurrera kaian eremu bat prestatuko da aldagela eta kontsigna gisa erabiltzeko, eta bertan emango dira identifikazioak ere. Lasterketa amaitutakoan Fraile Leku kaleko pilotalekuan duxatzeko aukera izango dute lehiakideek. Halaber, zeharkaldian izena eman duten guztiak horrelako ekitaldietan beti egin ohi den erantzukizun zibileko aseguru-polizak estalita egongo dira.

Urdaibai Biosfera Erreserbaren kokaleku paregabea egingo da zeharkaldia. Kokaleku pribilegiatu horri buruzko argibide gehiago eskura daiteke www.urdaibai.org webgunean. Naturarekin erabateko harmonian bizi da gizakia eremu paregabe horretan. Eta, hori nahikoa ez balitz, zeharkaldia Bermeoko jaietan egingo da larunbat honetan. Hain zuzen ere, andramariak garai bikaina dira Bermeo bisitatzeko eta bertako gastronomia paregabea dastatu eta edonoren gustukoa den familiarteko giroa bizitzeko. “Herritar guztiak ikuskizunaz goatzera animatu nahi ditugu, eta gogorarazi nahi dugu aurreikusten den bisitari-kopuru handia hartzeko zabalik ditugula gure atea”, esan zuen azkenik Bidegurenak.

www.salomecampos.com/press

www.clubcampos.com

www.clubcamposblog.com

Dpto. Salome Campos I. Zeharkaldiko prentsa-saila

Kanpo-komunikazioaren arduraduna

Adeitasunez, Guillermo Estecha

650426846

comunicacion@salomecampos.com

